



Jesusi buruz  
dakiguna

## Palestina en tiempos de la Biblia



- ✘ Augusto enperadorearen agintaldian jaio zen, Kristo aurreko (k.a.) 4. urtean gertatu zen Herodes Handiaren heriotzaren aurretik. Seguruenik K.a.ko 6. eta 4. urte bitartean. Nazareten hazi zen eta bere gurasoak Jose eta Maria izan ziren.
- ✘ Arameraz hitz egin zuen, gurasoek bezala. Hebreera ezagutu zuen eta jakina da ez zuela latina ezagutu ere egiten.
- ✘ Jesusen bizitza publikoa 30 urte beteta zituela hasi zen, hain zuzen ere, Jordan ibaian bataioa hartzeaz batera.



# JESUS PROFETA, SENDATZAILEA

Jesus fede juduan hezi zen, baina bere hitzak urteetan zehar esperimentatu zuen Jainkoarekiko buruz buruko hartu-eman sakonetik sortu ziren. Jainkoaz izan zuen esperientzia, apurtzailea izan zen eta bizipen horren eraginez Jainko bihozbera eta errukitsua aurkeztu zuen.

Mugarik gabe maitatzen zuen Jainko aita – amaz hitz egin zuen Jesusek.

Zalantzarik gabe, Jesusek jarduera sendatzailea garatu zuen eta bere garaikideek mirarizko jokaeratzat zuten. Gaixotasunen bat zuten gizon eta emakumeak gizartetik, familiatik kanpo geratzen ziren, garai hartan gaixoak lohituta zeudela uste zelako. Gaixotzea, Jainkoaren zigortzat hartzen zen.

Jesusek aurrenengo postuan jartzen ditu gaixoak, lohikeriaren tabuak hautsi eta gaixoak bertan behera uztea salatu egiten du, ez dela Jainkoaren nahia hots eginez.



## Jesusek, legeak “gainditzen” ditu

Jesusek bere garaiko arau eta legeak hautsi egin zituen. Beretzat, legeak pertsonen zerbitzura daude eta ez alderantziz. Bere jokabidearekin, Jesusek gizon eta emakume guztien duintasuna aldarrikatu zuen.



## Jesus hil egin zuten... eta Jainkoak berpiztu

Bere hizkerak, bere bizimoduak, Jainkoa eta honen Erreinua hots egiteko erak, egundoko gatazka sortu zion herriko agintari erlijiosoekin. Ondorioz, heriotzara kondenatu zuten.

Dena bukatu zela zirudienean, Jesusen auzia martxan jarri zen. Uste sendo batek, hau da, Jainkoak Jesus hilen artetik berpiztu zueneko usteak, hots egiten zuenaren egia baieztatu zuen eta Espirituari egotzitako berotasun espiritualak mugimendu erlijioso berriaren hasiera ekarri zuen.

Uste sendo hau gureganaino iritsi da eta bi mila urtez askotariko kulturetako milioika gizon eta emakumeren bitzta zentzuz bete du.

*La vida  
no tiene  
punto  
final,*



**GAUR EGUN...**

**ARRAZOIZKOA  
OTE DA SINESTEA?**

**ETA NIRETZAT?**